SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/10/20

BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA
tel. 948 630 005
IFK: P 31 25000D

# BANDOA (B31-2025)

## *LURRAREN EGUNA* DELA-ETA, HAINBAT ALDAKETA IZANEN DIRA TRAFIKOAN ETA APARKALEKUETAN

***Lurraren Eguna*** urriaren 26an (igandea) ospatuko da eta aurten Kanttonberri karrikan (**1**), San Jose egoitzako karrikan (**2**) eta Toki Onako aparkalekuaren eremu batean (**3**) izanen dira *salmenta postuak* (eskulangileak, ekoizleak eta gainerakoak) **[10:30-18:00]**

### Trafikoa eta aparkalekuak

Kanttonberri, San Jose egoitza eta Toki Onako aparkalekuek libre egon beharko dute ordutegi honetan (🚫) **[06:00-20:00]**. Ordutegi horretan ezin izanen du ibilgailurik gune horietatik pasatu edo aparkatu.




*Oharra*: etxebizitzen sarbidea libre utziko da baina ez saltoki eta etxabeen aurrealdea.

**06:00-20:00** Garajeetatik autoak ezin izanen dira sartu-atera

**10:30-18:00** Salmenta postuen guneak: eremu horiek bakarrik oinezkoentzat izanen dira.

### Behin-behineko aparkalekuak

Ohiko aparkalekuez gain, ondoko hauek ere jarriko dira egun horretarako:

SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/10/20

- Toki Ona institutuko patioa
  **[GPS**: 43.28067, -1.68047**]**
  Bakarrik urriaren 26an izanen da [*ordutegia*: 08:00-21:00].
- Bidasoa karrika parean, lehengo Agerrako futbol zelairen ondoko belar-soroan
  [**GPS**: 43.27824, -1.68827]

**Autobus geltokia**

Urriaren 25ean eta 26an [ospakizun egunean eta bezperan] Toki Onako aparkalekuaren ondoko geltokia ez da erabilgarri egonen. Egun horietako geltokia *Bidasoa karrika*-ra pasatuko da.

**1 Iruñeko noranzkoan**
Bidasoa karrika, 12 (NA-8304; **KP**: 1) *Martzutzak* denda parean
[**GPS**: 43.27989, -1.68817]

**2 Irungo noranzkoan**
Bidasoa karrika, 5 (NA-8304; **KP**: 1) *Apezabaita* etxea
[**GPS**: 43.27944, -1.68829]




Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña